

QEU

3 €

2007ko
abuztua-iraila

176



Kaix

2007
euskara

añanako eskualdeko euskararen aldeko jai

añanan

fiesta por el euskara de la cuadrilla de añana

mingainean

euskara
euskalerriko
azukrea

dantzak
herri bazkaria
txikilandia
artisau azoka

OSKORRI

PIRRITX ETA PORROTX

bertso saioa
umeentzako tartea
musika triki gaiteroak
pilota txalaparta

ribabellosa
erribera beitia

Irailaren 16 igandea



Diario berria



Erribera Beitiako Udala
Ayuntamiento de Ribera Baja



eskuernaga-villabuena (araba)

errioxa arabarrak jai zoriontsuak
opa dizkizue

GEU

www.geugasteiz.com

gozamina
plazera
atsegintasuna

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)
| Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua
| erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz
| tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es |
geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com |
zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkariako
batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune velez
de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas |
testuak: ainhoa arriaga, naroa cuesta, maite lekue,
josune velez de mendizabal, edurne begiristain
eta estitxu breñas | argazkiak: edorta sanz | testuen
zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas
glz. de zarate | maketa: dalvez | umorea: iñigo
sarasola eta mundina | publizitatea: idoia breñas, geu
aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria |
harpidetza-laguntzailea: edurne begiristain | inprimategia:
Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oiñati) | lg: VI-582/92 | issn:
1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau
paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak ez
du bere gain hartzen bertan adierazitakoen
erantzukizunik

Laguntzaileak:




Arabako
Foru Aldundia




Diputación Foral de Vizcaya

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

EROSKI
FUNDATZIOA

A circular photograph of a waterfall cascading over mossy rocks in a forest. The water is captured with a long exposure, creating a soft, ethereal, and slightly blurred effect. The rocks are dark and covered in green moss. The background shows dense foliage and trees, suggesting a lush, natural setting. The overall mood is serene and peaceful.

beroak jota nago, izerditan
blai. ura edan eta edan,
baina beroa ez dut gainetik
kentzen. ez dago haizerik,
eguzkiak zuzen-zuzenean
ematen dit. bat-batean, tru-
moia. ez daukat euri zapa-
rradatik nola babestu. hobe.
lehenengo tantak sentitzen
ditut. guztiz blai eginda
nago. gustatzen zait.



kanpoko soinuak
ahaztu. zu zeu zara
momentuko musikari bakarra.
melodia noiz sortuko ote den
zain zaude. bihotza daukazu
orkestraren zuzendari. biluz-
tasunean murgilduz etzan
zaitez astiro. itxi begiak.
ireki ahoa. arnastu. bizi.

-taupadak entzuten
al dituzu?

ume horren indarrez beteriko irribarre egiazalea dut gogoko.
zuek pozik zaudetela jakiteak bizitza alaitzen dit. egon
gara, gogoz aritu garela hizketan eta barrezka, gustura
erretiratzen naiz. dudana jabetzen naiz. izerdi
patsetan nago, dutxara noa. banihoa, bai,
kontzertu horretara, kantatu nahi dut, dantzatu
nahi dut. baita zure azaletik zehar ere.



esneduna, beltz-beltza, urrekin, laranja-
rekin, masustekin, jogurtarekin, kafeare-
kin, mendarekin, bizkotxoarekin, galete-
kin, ogiarekin, opilekin, gurinarekin, fruta
melatuekin, pastelaren estalki gisa...
sartu ahoan, dastatu, gozatu, usaindu,
irentsi... txokolatea.



zentzumenen plazer txikiak
dilistaz betetako zakuan, sar ezazu eskua
ilargi betean, atera kalera eta so zeruari
basoaren sakontasunean, mututu eta entzun
itsasotik hurbil, arnastu sakonki eta jaso gatz-lurrunak
txokolatez bustitako marrubia miazkatu,
mantso ahoan urtzera arte.




geldi zaitez une batez oskarbian paratu-
tako hodei eranitz horri begira. malgua
da. bizitzak behar lukeen bezala. horrela
bizitzea atsegin dut, malgutasunez,
hodeiak zeruan barrena dabiltzan legez.
egoera berrietara moldatuz.



gaua da. hondartzan zaude, biluzik. buruz gora etzanda eta
hondarraren zimurtasuna sentitzen duzu azalean. harearekin
jolasean mugitzen zara, besoak mugitzen dituzu, hankak...
hondarrez bete zara, zutitu eta olatuen soinuari jarraika itsa-
sertzera gerturatzen zara. hankak uraren freskotasuna sentitu
du. hotzikara gorputzean. astiro-astiro uretan sartu zara, eta
izarren begirada lotsagabeari erreparatu barik plazera senti-
tzen duzu. bakarrik, zu, izarrek eta itsasoa.




zure pentsaerak, zure eskuek,
asetzen naute. ukitzeko era bat
da. nik gustuko dudana. plaze-
ra. eta bizitza zabaltzen da,
garia udaran krask eginez
zabaldu bezala. eta batzuetan
egun on diotsut. agur, bestetan.
gustura, gaudenean. gustura,
nagoenean. eta eskua luzatzen
dizut. kendu inoiz ez. kontaktu,
kontaktu, kon takto.



gaur dena txarto atera zait, baina azkenean jakin dut eguna altxatzen. jakin dut eztabaida hori gainditzen. ondo sentitzen naiz. saiatu naiz. / bizitzan gauzak ez doaz beti ondo. halere, arazoei, oztopoei aurre egiten saiatzen naiz. hori egiten ikasi dut. irakatsi didate. eta horrela hobeto bizi da. bizitza samurragoa da. eta nire irribarrea eskaintzen ahalegintzen naiz.


zure irriaren isla usaindu nuen aurrenekoz, zure ahots leunak laztandu ninduen gero, zure begiradaren oihartzunak iratzarri ninduenerako... beranduegi zen jada gauza onerako.

inoiz sentitu al duzu besarkada baten beharrik? besarkada estu eta indartsu baten beharrik? itxi begiak. indar handiz besarkatzen ari natzaizu.



"ez nintzen leku egokienean jaio.
helbide finkorik ez daukat. haurtzar-
roa, jolasak, barreak... bidean galdu
nituen. harresi, muga, oztopo...
gehiegi igaro ditut. zabarkeria, axo-
lagabekeria, nonahi aurkitu ditut.
amesten dudan horren bila nabil.
etorkizunaren zain nago. maletarik
gabeko bidaia da nirea".

- zein da zure izena?
- itxaropena

A circular photograph showing a close-up of a snail on a weathered wooden log. The snail's shell is dark and textured, and its body is extended from the shell. The wood has a vertical grain and shows signs of age and weathering.


iratzargailuak gaur
ere altxarazi nau.
atzo baino hobeto
sentitzen naiz. atse-
den hartuta. gorpu-
tza eta burua
sasoian ditut. pozik
jauzi egiten dut nire
gauzetara. egun
gogorra aurrean
baina beldurrik ez...
gaua heltzeaz jada.
biltzeko ordua. etxe-
an nago. eguna
ondo joan da. pozik
nago. lotara noa.

karramarroak dantzan

bazkaldu osteko tripa betea, liseriketa bidean.
eguzkiak leun jotzen du leihoan, eta
zelaira begira geratu naiz, ez luzaroen ordea.
begiak ixten zaizkit goxo;
handik denbora neurtu ezingo zitekeen doitasunaz
fantasietan murgiltzen hasi naiz...
arin, suabe, pisurik gabe ohean etzanda
eta izaren artean galduta
zurekin egin dut topo.
desioz begiratzen didazu eta
aurpegian beroa sentitu dut...
lotan al nago dagoeneko?
zurekiko grina aske agertu zait ametsen munduan,
debekurik ez dagoen lurraldean,
bekatutik salbu.

sargoria sartu da pertsianatik barrena.
izerdi lotsatia azalarazi zaigu bioi,
elkarren arteko musuak gatza dute zapore eta
trumoien hotsak nire plazera gosetu du.

zure eskuen laztanek gogor heltzen diote nire gerriari,
itsaso bizian olatuen indarrez mugimendua
ttak ttak ttak, tanta beroen erritmoa etxeko sabaian.
ttak-ttak-ttak,
gero eta ugariagoak, ekaitzaren soinua.
zu hautatu zaitut gaurko arratsalde honetan
lozorroan lagun.



txokolatezko tartaren errezeta

kiloka irribarre


umore zaku betea

poztasun malko aski batzuk


bihotz leiala eta

adiskide bat gutxienez (benetakoa izatearekin nahikoa da)


listo! kosk egiteko prest!




oinutsik harea artean
biluzik itsaso barnean
infinituari so, gustura.



egunsentiko lehen eki izpiak ikus ditzaket pertsia-
natik sartzen... polita da. logelak kolore atsegina
hartu du. argi malutak sartu dira, han-hemen,
jolasean daude, kanpoko haizeak pertsiana eragi-
ten duenero. horman puzzle bitxia sortu du eguz-
kiak, beltza eta hori kolorezko puzzlea da logelako
horma. eta ni sabaira begira, argiarekin jolasean.
eguzkiaren izpiak gero eta indar handiagoarekin
sartzen dira pertsianaren zuloetatik. eguna esna-
tzen doa, baina nik ez dut esnatu nahi. gustura
nago hemen, ohean etzanda, sabaiari
begira, argi malutekin jostatzen. ez
dut lanera joan nahi, hemen
geratuko naiz.



ibabek txikitari idatzi ohi
zuen egunekoak topatu
zuen atzo etxe aldaketa
egiten ari zela, eta afari
erdian gelara joan eta
berarekin bueltatu da.
"gaur saskibaloian egon
gara eta oso mutil guapo-
ak ezagutu ditugu".
barre-argara sortu da bat-
batean. primeran gogora-
tzen ditut garai horiek!



emaitza bainoago prozesuak nahiago ditugunontzat:
txokolatea hatz-mamien artean urtzea,
mingainarekin papera goxotasunez bustitzea,
esku-azpian txokolatea eta belarra nahastea,
poliki-poliki eta suabe-suabe lortutako hori kiribiltzea,
lurrinak erreko dugunaren aperitifia eskaintzea...



“txikitan, loa erreinu handi baten
ataria zela imajinatzen nuen...
loaren erlaitza igarota, nire neurrira
egindako mundu batean murgil-
tzen nintzen...”

[andrei codrescu]



esnatu eta goizero
nire ondoan zaude-
naren indarrak bila-
katzen nau bizijale...
ñaaaammmmm!

laztandu, ferekatu, igurtzi,
musukatu, miazkatu, kosk!
aska zaitez, plazererako
prest!





lodiak, meheak, sendoak, mardulak... historiak, hilketak, erromantzeak, usteak... prosa, poesia, komikia...
milaka liburu mota daude, beldurrik gabe has zaitetz irakurtzen, izua sentitu arren jarraitu bukatu arte.

gustuko dut zure aurpegian plazera ikustea.
gustuko dut zure azalak plazera sentitzea.
desio dut zure plazera.
eskua zure sabelean paratzea.
zure sabelak nire sabelarekin topo egitea.
igurtzea.
hasperenak eta plazera.
nire mingaina eta zure mingaina, zure ahoa eta nire ahoa.
sentitu nahi zaitut.
fereka nazazu.
ferekatuko zaitut.
plazera emadazu.
gustuko dut nire aurpegian plazera ikustea.
gustuko dut zure plazera.



aska zazu, aska zaitez
zergatik ez
esan zazu, esan baietz
zergatik ez.

sexua gozatzeko da (zergatik ez)
nahi duzunakin gustora (noski baietz)
lotu ahoa ahoan, ezpaina ezpain goxoan
ta mingaina mingainari (mugi hadi)
disfrutatzen da ugari!!

pentsamoldeak apurtu (ez beldurtu)
harrotasunez ikutu (ez beldurtu)

...

neska mutil, neska neska (hau da festa)
mutil mutil, txarra ezta (txarra ezta)
bizitzeko bizi gera, goazen denok gozatzera


...

[zergatik ez? (etzakit)]



barre egiten dut. bizitzaren aurrean barre. arazoan
aurrean barre. lagunekin barre. bakarrik barre. irakur-
tzen barre, irratia entzuten barre.... tripako mina hasi
arte barre. arnasa faltan izan arte barre.





zoriontasuna ez da norberak nahi duena egitea
baizik eta norberak egiten duena maitatzea.

[jean paul sartre (1905-1980). pentsalari eta idazle frantsesa]

IUPI,
UDAKO ALEA!
BERRIRO DENOK
BILUZIK

FLOP!

BILUZIK
BAI, BAINA NEURRI
BEREZIETARA ONDO
EGOKITUAK!!


Imagin
S. PARASOLA



BONZODON
GASTEIZAR TORTXA

MADINA
2007

3 20:30etan kalejira (txosna gunearen inaugurazio ez ofiziala)



23etan 24etan
BERRI TXARRAK

4 00:30etan

AMAIUR

berbera

5 amnistia-aren aldeko eguna
herri-bazkaria-kalejira

Umeen txosna

Sebastepoleko titiriteroak

17etan HARPPAN paila-roak 18etan HARPPAN zirko tailerrak

24etan

2etan

KautA

NEUBAT

4etan HARPPAN

MUSIK BERRI

h eskainita...Kasta, Garagardogura
Ankerrak eta Erramun merkatali brigadie

6

17etan HARPPAN zinea "The Last Waltz" (scorsese)

23:30etan

AMON RA

00:30etan

SEÑOR NO

2etan

SEX MUSEUM

HARPPAN

4etan



6etan

DJ Nasty

7

Entxosnazio eguna

14:30etan

herri-bazkaria

24etan

17etan

Iuhartz

erronomia

2etan



betagarri

Lamatumbá

4etan HARPPAN

6etan HARPPAN

TXAN MAGOA

Betagarri eta Lamatumbá DJak

8

17etan HARPPAN musika klasiko

24etan

2etan

eorann



4etan HARPPAN

6etan HARPPAN

ZIGOR allnighters eta Fernando acapulco DJak

9

gazte eguna

15:00etan HARPPAN herri-bazkaria

20:00etan Andra Mari Zurian manifestaldia

21:00etan txosnabetan ekitaldia

1etan

FERMIN MUGURUZA
AFRO-BASQUE FIRE BRIGADE

4etan HARPPAN

GORRA kobazulo

6etan HARPPAN

SONIC LINUS



gasteizko txosna 2007
herri mugimenduarekin ENTXOSNATU